

II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AIARAKO KUADRILLA

Ekonomia sustatzailearen plaza: onartu eta baztertuen behin betiko izangaien zerrenda

Martxoaren 18an, lehendakaritzaren 28/2024 Dekretua onetsi zen.

Aztertu dira lehendakariaren 69/2022 Dekretua eta Tokiko Gobernu Batzarraren 2022ko azaroaren 28ko Erabakiaren gai zerrendako bigarren puntua.

Aztertu da 2022ko abenduaren 21eko ALHAOn (146 zk.) argitaratutako 3454/2022 iragarkia, zeinaren bidez hautaketa oinarriak eta deialdia argitaratu baitziren egiturazko plaza hutsak merezimendu lehiaketaren sistemaren bidez betetzeko, 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrietatik eratorritako iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko deialdiaren esparruan Akats materialak zuzendu ziren 2023ko urtarrilaren 25eko ALHAOn (10 zk.) eta 2023ko otsailaren 20ko ALHAOn (21 zk.).

Abenduaren 28ko 20/2021 Legetik eratorritako aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesuen kudeaketa esleipena Arabako Foru Aldundiaren esku uzten da.

Aztertu da 2023ko apirilaren 19ko BOEn argitaratutako 9571 iragarkia, eskaerak aurkezteko epea irekitzen duena.

Aztertu da irailaren 25eko 68/2028 Dekretua, onartutakoaren eta baztertutakoaren behin-behineko zerrenda onesten duena.

Amaitu da eskaerak aurkezteko hogeita egun balioduneko epea, bai eta, hala badagokio, akatsak zuzentzekoa ere. Hori dela eta, honako hau

ERABAKI DA

Lehenengoa.- Aiarako Kuadrillan administrazio bereziko eskalako teknikarien azpieskalako artxiboko ekonomia sustatzailearen plaza bat merezimendu lehiaketaren bidez hautatzeko prozesuan onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda onestea, baita autobalorazioaren behin-behineko puntuazioa ere, 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrietatik eratorritako iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko deialdiaren esparruan.

Onartutakoak

IZENA	1. ABIZENA	2. ABIZENA	NANA	AUTOBALORAZIOA PUNTUAK
Gianfranco	Ghiro	Alonso	7904*****	100
Mari Carmen	Ruiz	Diez	** 9211***	81,17906
Yolanda	Galaz	Vidal	**** 1470*	80
Rubén	Medrano	Rodriguez	* 8591****	80
Susana	Sordovilla	Lacabe	*** 8070**	20

EZ onartutakoak

IZENA	1. ABIZENA	2. ABIZENA	NANA	ARRAZOIA
Inés	Soto	Cabria	7282*****	TASAK EZ ORDAINTZEA

Hamargarren oinarrian jasotakoarekin bat etorritik, deialdian plaza bat sartu denez, autobalorazioan zero puntu edo gehiago lortu dituzten eskaerak baloratu behar dira.

Bigarrena.- Autobalorazioan kasu bakoitzean adierazitakoa baino puntuazio handiagoa lortu duten izangaiek agirien bidez egiaztatu beharko dituzte eskaeran alegatutako merezimenduak, 10 egun balioduneko epean, ebazpen hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Errekerimendu honek barnean hartzen ditu eskaeran alegatutako merezimendu guztiak, zortzigarren oinarriaren arabera ofizioz kontsultatu behar direnak izan ezik, eskatzaileak aurka egin ezean. Era berean, I. eranskina aurkeztu beharko dute, ofizioz kontsultatuko den informazioaren zerrenda eta adostasun/aurka egite eredu jasotzen dituen.

Hirugarrena.- Autobalorazioan kasu bakoitzean adierazitakoa baino puntuazio handiagoa lortu duten izangaiek adierazi beharko dute zein den deialdian parte hartzeko betekizun gisa erabiliko duten titulua, eta, hala badagokio, aurrerago egiaztatu beharko dute. Horretarako, II. eranskina beteta aurkeztu behar dute.

Laugarrena.- Agiriak Aiarako Kuadrillaren egoitza elektronikoan aurkeztu ahal izango dira, edo aurrez aurre, erakundearen erregistro eta herritarrentzako arretarako bulegoan. Era berean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan ezartzen dituen tokietako edozeinetan ere aurkeztu ahal izango dira.

Bosgarrena.- 9.2. oinarriaren arabera, baztertutako pertsonak merezimenduaren baloraziora aurkeztu ahal izango dira, bai eta euskara azterketa egitera ere, kautelaz, baldin eta kanporatzearen aurkako errekurtsoa aurkeztu dutela egiaztatzen badute. Lehiaketaren kalifikazioa argitaratzen den egunean errekurtsoa ebatzi gabe badago, kautelaz egin ahal izango dute euskara azterketa. Egindako ariketek ez dute inolako baliorik izango errekurtsoa ezesten bada.

Seigarrena.- Aipatutako hautaketa prozesuko epaimahai kalifikatzaileko kide izendatzea honako hauek:

	TITULARRA	ORDEZKOA
Epaimahaiburua	Alexander Rodríguez López	Pablo Martínez de Arbuló Echevarría
Epaimahaikidea	José Javier Díaz Gómez	Olga Pascual Calle
Epaimahaikidea	M ^o . del Carmen Rojo Pitillas	María Luisa Velasco Irueta
IVAPen ordezkaria	Marta Ramírez Gómez	Ana López de Lacalle Eceolaza
Idazkaria	Eduardo Alday Galán	Javier Ortíz de Urbina Ugarte

Zazpigarrena.- Ebazpen hau ALHAOn, erakunde honen iragarki-taulan eta webgunean (www.cuadrilladeayala.eus) argitaratzeko agintzea.

Zortzigarrena.- Administrazio bideari amaiera ematen dion ebazpen honen aurka, nahi izanez gero, berraztertzeko errekurtsoa jarri ahal izango zaio lehendakariari, hilabeteko epean, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, edo, bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsoa, administrazioarekiko auzien jurisdikzioan eskuduna den organoan, bi hilabeteko epean, aipatutako egun beretik aurrera. Ez dago bi errekurtsoak batera jartzerik. Aurrekoez gain, interesdunak egoki iritzitako beste edozein errekurtso ere aurkeztu ahal izango du.

Bestalde, epaimahaikide direnak Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan xedatutako egoeretako batean badaude, edo deialdia baino lehenagoko azken bost urteetan izangaia prestatzen aritu badira, interesdunek edozein unetan errekusatu ahal izango dituzte epaimahaikideak, bat etorritik aipatutako lege testuaren 24. artikuluan ezarritakoarekin.

Bederatzigarrena.- Kuadrillako gobernu batzarrak egiten duen hurrengo bilkuran dekretu honen berri ematea eta Lehendakariaren Dekretuen eta Ebazpenen Liburuan transkribatzeko agintzea.

Arespalditza, 2024ko martxoaren 18a

Lehendakaria

ENCINA CASTRESANA ASTARLOA

I. ERANSKINA

Deialdi honen oinarri orokorren arabera, alegatutako merezimenduak egiaztatuko dira, kasuen arabera, kontsulta eginez dagokien erregistroetan, administrazio publikoen datu bitartekaritarako plataforman edo ziurtagiria ematen duen erakundearen.

Kontsulta horiek kasu guztietan egingo dira, salbu eta eskatzaileak modu arrazoituan horren aurka egin badu eta tratamenduaren ardura duen organoak hori aintzat hartzen badu.

Eskatzaileak, modu arrazoituan aurka egiten duela adieraziz gero, adierazpen horrekin batera aurkeztu beharko ditu, nahitaez, kontsulta daitezen nahi ez duen agiriak.

Deialdi honetan, deialdia egin duen erakundeak ofizios egiaztatuko ditu eta/edo espedientean sartuko ditu, interesdunak berariaz kontrakorik adierazi ezean, honako datu hauek (ikus zortzigarren oinarria):

- Pertsonaren identifikazioa.
- Titulu akademikoak, unibertsitatekoak zein unibertsitatez kanpokoak
- Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan inskribatutako euskara ziurtagiriak.
- IVAPen bidez (Administrazio Publikoaren Euskal Institutua) egin eta gainditutako ikastaroen ziurtagiria.
- Gidabaimena (DGT).
- IT txartelen ziurtagiriak.
- Deialdia egin duen administrazioan egindako zerbitzuak.
- Deialdia egin duen administrazioan gainditutako hautaprobak.

DATUAK KONTSULTATZEKO ADOSTASUNA/AURKA EGITEA

..... jaunak/andreak (NAN/AIZ:),
..... prozedurari dagokionez,
honako hau

ADIERAZTEN DU (markatu dagokiona):

Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 28.2 artikulua arabera, ez nago eranskin honetan adierazitako datuak kontsultatzearen aurka.

Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 28.2 artikuluan xedatutakoa aplikatuz, informazio hau kontsultatzearen aurka egiten dut:

- Titulu akademikoa
- Euskarako hizkuntza eskakizuna
- IVAPen bidez egin eta gainditutako ikastaroen ziurtagiria
- Gidabaimena (DGT)
- IT txartelen ziurtagiriak
- Deialdia egin duen administrazioan egindako zerbitzuak
- Deialdia egin duen administrazioan gainditutako hautaprobak

Aurka egiteko arrazoiak:

.....
.....

Agiri hauek kontsultatzearen aurka nago, eta neuk aurkezten ditut:

.....
.....
.....,(e) koren(a)

Sin.:

II. ERANSKINA

BETEKIZUN GISA AURKEZTEN DEN TITULUAREN ADIERAZPENA

..... jaunak/andreak (NAN/AIZ:.....),
..... erakundearen..... deialdiari dagokionez,
honako hau

ADIERAZTEN DU:

Deialdi honetan parte hartzeko betekizun gisa..... titulua erabiliko dut,
egun honetan lortua:

.....,(e) koren(a)

Sin.: